



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

AHOZKOTASUNAREN JABETZE PROZESUA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Castellanos Benali, Ane

Zuzendaria: Reguero Ugarte, Urtzi

2020-2021

LABURPENA

Gradu amaierako lan hau Haur Hezkuntzan ahozotasuna lantzen hasteak duen garrantzia aztertzea du helburu, zehazki, lehenengo etapatik ahozotasuna eta komunikazioa lantzen hasteak duen beharra eta irakasleak hori sustatzeko kontuan hartu behar dituen zenbait alderdi azpimarratzea. Horretarako, Haur Hezkuntzako bi urteko gela batean behaketa sakon bat eginez, hurrek ahozotasunean duten gaitasuna eta garapena aztertzen da, beraien artean dituzten desberdintasunak eta baita irakasleak prozesu horretan duen garrantziari ere erreparatuz. Azkenik, bi urteko hurrekin lantzeko zenbait jarduera proposatuko dira, haurren ahozotasunaren jabetze prozesuan laguntzeko asmoarekin diseinatuta daudenak.

Hitz gakoak: Ahozotasuna, Haur Hezkuntza, hizkuntzaren jabetasuna eta garapena, komunikazioa.

RESUMEN

Este trabajo de fin de grado tiene como objetivo analizar la importancia de empezar a trabajar la oralidad desde la Educación Infantil, en concreto, subraya la necesidad de empezar a trabajar la oralidad y la comunicación desde la primera etapa y también la importancia de fijarnos en algunos aspectos que el profesor deberá tener en cuenta para facilitar y promover el aprendizaje de esta. Para ello, a través de una profunda observación, se analiza en un aula de dos años de Educación Infantil la capacidad y el desarrollo de los niños y niñas en la oralidad, sus diferencias entre ellos/as y la importancia del papel de el/la profesor/a en este proceso. Por último, se propondrán una serie de actividades para trabajar con niños y niñas de dos años, diseñadas con el fin de contribuir al proceso de adquisición de la oralidad infantil.

Palabras clave: Oralidad, Educación Infantil, adquisición y desarrollo del lenguaje, comunicación.

ABSTRACT

The aim of this final degree thesis is to analyse the importance of starting to work on orality from Early Childhood Education, specifically, it underlines the

need to start working on orality, oracy and communication from the first stage and also the importance of looking at some aspects that the teacher should take into account to facilitate and promote the learning of this. For this purpose, through this observation, in a two-year-old classroom of Infant Education, we analyse the ability and development of children in orality, the differences between them and the importance of the teacher's role in this process. Finally, a series of activities will be proposed to work with two-year-old children, designed to contribute to process of acquiring children's orality.

Keywords: Orality, Early Childhood Education, language acquisition and development, communication.

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
2. MARKO TEORIKOA	6
2.1. Ahozkotasunaren eta hizkuntzaren garrantzia Haur	
Hezkuntzan.....	6-7
2.2. Ahozkotasunaren teoria desberdinak.....	7-9
2.2.1. Teoria konduktista	
2.2.2. Teoria psikolinguistikoa	
2.2.3. Teoria kognitiboa	
2.2.4. Konstruktibismo soziokulturala	
2.3. Haurraren komunikazio-garapenaren bilakaera 0-3 urte	
bitartean.....	9-12
2.4. Ahozkotasunaren eta komunikazioaren garapena errazteko eta	
sustatzeko moduak.....	12-17
2.4.1. Atxikimendu seguru baten garrantzia	
2.4.2. Testuinguru soziala	
2.4.3. Begirada	
2.4.4. Ahotsaren karakterizazioa	
2.4.5. Entzuketa aktiboa	
2.4.6. Galdera eragileak	
2.4.7. Hurrek egiten dituzten akatsen kudeaketa	
3. HELBURUAK.....	17
4. BEHAKETAREN TESTUINGURUA.....	17
4.1. Ikastetxearen ezaugarriak.....	17-18
4.2. Bi urteko gela.....	18-19

5. BEHAKETA.....	19
5.1. Haurren ahozketasuna aztertzen.....	20-26
5.2. Irakaslearen papera.....	26-29
5.2.1. Ama-hizkuntza eskolako hizkuntzaren desberdina	
5.2.2. Atxikimendu segurua eraikitzea	
5.2.3. Andamiaje teknika desberdinen erabilpena	
6. ONDORIOAK.....	29
7. AHOZKOTASUNA LANTZEKO PROPOSAMENA.....	30
7.1. Plangintza fasea: Sekuentzia didaktikoaren diseinua.....	31-33
7.2. Jarduerak.....	33-38
8. AZKEN GOGOETA.....	38
9. ERREFERENTZIAK.....	40
10. ERANSKINAK.....	41

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ahokotasuna ez da bat-batean osotasunez eta zuzentasunez eskuratzen den zerbait, hau da, etengabeko eta berariazko lanaren bidez lantzea eta hobetzea ezinbestekoa da. Ahokotasunaren oinarritzko elementua hizkuntza da, azken finean gizakioi gainontzekoekin komunikatzeko eta munduaren ikuspegia zabaltzeko eta partekatzeko aukera ematen digun elementua delako, pertsona integratuak izaten eta osotasun osoz garatzen lagunduko gaituena. (López eta Encabo, 2016).

Haurrak beraien bizitzako lehenengo etapa honetan ahokotasunarekin lehenengo harremanak eraikitzen hasten dira. Aurten Practicum III-a bi urteko gela batean aurrera eraman dut, horregatik gradu amaierako lan honetan bertan aztertutako zenbait alderdi islatzen dira. Izan ere, gai hau erabakitzearen arrazoi nagusia askotan, Haur Hezkuntzako lehenengo etapa honetan batez ere, ahozko hizkuntza haur txikiekin lantzeak merezi duen denbora ezta garrantzia ematen ez zaiola da. Esan beharra dago, irakasle askok ordu-tegi finko eta zorrotz bat jarraitzen dutenez eta gela bakoitzean haur kopuru handia egoten direnez, askotan irakasleei haurrek behar duten kalitatezko arreta pertsonalizatuago bat eskaintzea zaila egiten zaiela, adibidez, haurren bat irakaslearengana gerturatzeko denbora zerbait kontatzera eta honek haurrak esaten duena arretaz entzuteko eta behar duen andamiajea eskaintzeko denborarik ez duenean. Beraz, ikastetxe gehienetan egunerokotasunean ematen diren irakasle-ikasle elkarrekin urriak izaten dira eta, normalean, kalitate txikikoak.

Del Rio (1993) esaten duen moduan, hizkuntzaren komunikazio-alderdiak irakasteko, eskoletan erabiltzen duten metodologia tradizionalak aldatzea beharrezkoa da, erabiltzen diren baliabide materialak eta ordu-tegiak ere aldatuz. Ikuspegi sozial batetik aztertuz, hizkuntzak gizarte-harremanetan parte hartzeko aukera ematen du, pertsonen arteko komunikazioa sustatuz eta sozializazioarako tresna erabilgarrian bilakatuz. Horretaz gain, gainontzekoei gertaerak, sentimenduak, desioak adierazteko eta besteen portaera arautzeko ere balio du (Bigas, 1996). Azken finean, haurrek orokorrean gauza mordoak komunikatzeko gogo dute, batez ere etapa honetan, egora, gauza eta pertsona berriak deskubritzen doazen heinean, hauek gainontzekoekin partekatzeko

beharra izaten dutelako. Baina horretarako konfiantzazko giro bat sortzea, haur bakoitzari behar duen denbora eskaintzea, esaten duten guztia arretaz entzutea eta elkarrizketa gauzatzen den momentuan begirada mantentzea beharrezkoa da, modu honetan, kontatzen ari dena irakaslearentzat garrantzia handia duela ikusaraziz, haurrak balioetsiak sentituko dira eta aldi berean, besteak entzuten ere ikasiko dute.

Hasi aurretik, aipatu beharra dago Gradu Amaierako Lan honen behaketan erabiltzen diren izen guztiak faltsuak direla, haurren pribatutasuna eta intimitatea gordetzeko helburuarekin.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Ahozkoaren eta hizkuntzaren garrantzia Haur Hezkuntzan

Ahozkoaren gizabanako bakoitzak jaiotzean berenganatzen duen lehenengo komunikazio-sistema da, hau da, bizitzarekin sortzen den lehenengo esperientzia interaktiboa (Mostacero, 2004). Trebetasun honi esker gizakia gainerako espezieetatik bereizten da, ahozkoaren bizitzaren bide gidaria bilakatuz. Izan ere, ahozkoaren lehenengo urteetatik modu egoki batean garatzea beharrezkoa da, modu honetan, ahozkoaren ikasteko prozesua zenbat eta hobea eta aberatsagoa izan, orduan eta azkarragoa eta errazagoa izango da gainontzeko ikaskuntzak berenganatzea (Ituero eta Casla, 2017).

Bizitzako lehen urteak haurren geroko garapenerako funtsezkoak dira, bertan ahozkoaren eta hizkuntzaren lehen aztarnak hasten baitira. Denboraldi horretan, haurrek gainontzekoei zer esan nahi duten, zer pentsatzen duten eta zer sentitzen duten adierazteko lan zaila dute, baina hizkuntzari esker haurrek bere berdinekoekin eta baita helduekin ere informazioa trukatzeko eta komunikatzeko aukera izaten dute (Ituero eta Casla, 2017). Guibourg (2008) esaten duen moduan, ahozko hizkuntza ez da gizakiak komunikatzeko erabiltzen duten tresna bakarra, hau da, mezuak transmititu eta jasotzeko baliabide edo modu desberdinak erabiltzen dituzte. Adibidez, haurrek beraien egunerokotasunean gainontzekoekin komunikatu ahal izateko ahozko hizkuntza erabiltzeaz gain, keinuak, gorputz jarrera, soinuak eta begiradak ere erabiltzen dituzte (Ituero eta Casla, 2017).

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan ahozketasuna garatzeak garrantzia handia du, azken finean hizkuntza hurrek beraien hezkuntza prozesu guztian zehar norberaren ikaskuntza sustatzeko beharko duten tresna garrantzitsua delako (Bigas, 1996). Etapa honetatik aurrera, beharrezkoa da eskolak askotariko komunikazio eta diskurtso desberdinak eskaintzea ikasle bakoitzaren ahots propioa eraikitzeko, ahozko hizkuntzako praktikan egoki erabiltzen ikasteko eta sozializazio prozesu horretan aktiboki parte hartzeko (Pérez eta Roa, 2010).

Haurrak bizitzako lehenengo hilabetetik, sozializazio prozesuarekin batera, komunikatzeko duten behar eta nahietatik abiatuta hizkuntza garatzen eta eraikitzen hasten dira. Izan ere, hau lortzeko beste pertsonekin harremanetan egotea ezinbestekoa da (Gómez, 2010). Harreman hau hasiera batean familia arloan ematen da, baina haurrak beraien hezkuntza prozesua hasten duten heinean, espazioa, materialak eta esperientziak ezagutzen ez dituzten bere adineko hurrekin eta baita irakasleekin ere partekatu behar izaten dituzte (Sellares, 2008). Trantsizio hau beraientzat oso aldaketa handia eta gogorra izaten da, azken finean lehenengo bereizketa hau jaiotzaren ondorengo lehen aldaketa esanguratsua delako, bai haurarentzat eta baita familiarentzat ere (Quinto, 2010).

2.2. Ahozketasunaren teoria desberdinak

2.2.1. Teoria konduktista

Skinner moduko konduktistak adierazten duten moduan, hizkuntzaren jabeakuntza soilik haurtzaroan eskuratzen den eta estimulu eta erantzun prozesu baten bidez ikasi behar den jokabide bat da (Owens, 2003). Haien usteetan hitzaren eta esanahiaren arteko lotura asoziazioarekin zerikusia du, hots eta objektu jakin batzuen aldibereko eta behin eta berriz errepikatutako pertzepzioen bidez ezartzen dena (Guibourg, 2008).

2.2.2. Teoria psikolinguistikoa

Teoria psikolinguistikoak adierazten duen moduan, haurrak jaiotzen diren momentutik gaitasun genetikoari esker hizkuntza ulertzeko eta ikasteko gaitasuna dute. Chomsky bezalako autoreentzat mekanismo hori unibertetsala da,

hau da, hizkuntzen ulermena eta ikaskuntza herrialde eta kultura guztietan berdin gertatzen dela uste dute (Owens, 2003). Haiek adierazten duten moduan, sintaxia hizkuntza guztiek komunean duten eta hitz egiteko hura ezagutzea ezinbestekoa den ezaugarrietako bat da. Izan ere, sintaxia hain da konplexua, non hiztunak hizkuntza menderatzeko berezko joera izan behar duela azpimarratzen dute (Guibourg, 2008).

2.2.3. Teoria kognitiboa

Piageten arabera, haurrak hizkuntza berenganatu ahal izateko kontuan hartu beharreko funtsezko bi faktoreak objektuaren iraunkortasuna eta imitazioa dira (Owens, 2003). Autore honek ez du begirunea hizkuntzaren jabeakuntzan jartzen; aitzitik, arreta gehiena funtzio sinbolikoaren garapenean jartzen du, hau da, haurrek errealitatea irudikatzeko duten giza gaitasunean zentratzen da. Izan ere, haurrak subjektu aktiboak diren heinean bizitzen dituzten esperientzietatik abiatuta, poliki-poliki beraien kabuz objektuen esanahiak eraikitzen joango dira. (Guibourg, 2008).

2.2.4. Konstruktibismo soziokulturala

Teoria soziolinguistikoak adierazten duen moduan, hizkuntza komunikazio-prozesuak eskuratu ondoren, erabiltzen den komunikazio-tresna da. Izan ere, hau eskuratu eta erabiltzeko motibazio nagusia, komunikazio eraginkorra lortzea da, modu honetan, hiztunak komunikazio-egoera kontuan hartuta, bere asmoetara hobekien egokitzen diren forma eta edukiak aukeratu beharko ditu (Owens, 2003).

Vigotskyren arabera, giza garapenak ez du herentziak bakarrik bermatzen, hau da, gizarte interakzioari esker hezkuntza bermatzea ahalbidetzen da. Beraz, haurrek beraien bizitzako lehenengo urtean zehar hizkuntza eta pentsamendua bide paraleloetan garatzen dute, baina bigarren urtetik aurrera hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko bateratze prozesua hasten da, hizkuntza garatzeko eta ikasteko aukeretan aldaketa kualitatiboak eraginez (Guibourg, 2008).

Eskola hizkuntzaren garapenerako testuinguru pribilegiatu bat da, azken finean, bertako irakasleek ekimena eta komunikazio-baliabide egokiak izanez gero, ikasgela interakzioko testuinguru baikor batean bilakatu egingo du. Modu honetan, ikasleek aukera gehiago izango dituzte beraien adierazpen eta komunikazio trebetasunak zabaltzeko eta hauek poliki-poliki hobetzen joateko (Del RÍo, 1993). Gainera, Haur Hezkuntzako etapa honetan berdinen arteko harremanetarako eta komunikaziorako moduak azaltzen hasten dira. Izan ere, berdinen arteko elkarrekintza haurren sozializazio prozesuan bereziki garrantzia handia dute eta haurren ikaskuntza prozesuan onura ugari eragiten dituzte (Bigas, 2008).

2.3. Haurraren komunikazio-garapenaren bilakaera 0-3 urte bitartean

Hautzaroko lehenengo bi urteak esplorazioz eta alaitasunez betetako bidaia dira. Izan ere, bertan hasten dira poliki-poliki komunikazio gaitasunekin esperimentatzen, ingurunean dituzten soinuak entzun eta hauek imitatzen saiatzen dira, soinuak, zizakadurak eta keinuak eginez. Etapa honen amaieran hitz osoak artikulatzeko gaitasuna menderatzen duten arte (Spidell eta Thalenberg, 2013).

1-6 hilabete

Haurrak komunikatzeko prest iristen dira mundura, hasiera batean erabiltzen duten komunikazio-mekanismo nagusia emozioak dira. Haurrak gorputz seinale desberdinak erabiltzen ditu, gauza bat edo beste bat adierazteko helburuarekin, hala nola, irribarrea, negarra, gorputza luzatzea eta astintzea eta abar. Azken finean, nahi gabeko ekintza hauen bidez, helduarengan berehalako erantzuna izatea lortzen du (Ituero eta Casla, 2017). Bizitzako lehenengo sei hilabeteetan, haurrek ikusmen-gaitasuna garatzen dute eta objektuak, bere inguru hurbilean dauden pertsonak eta gertaerak aztertzen hasten dira. Modu honetan, poliki-poliki beraien memoria bisuala handituz joango da, hizkuntzan eta garapen sozialean lagunduz (Owens, 2003).

Hiru hilabete inguru dituztenean, haurrek soinu erritmikoak erreproduzitzen dituzte, ikus-estimuluei eta gainontzekoak esaten dutenari erantzuteko helburuarekin. Horri proto-elkarrizketak esaten zaio eta etorkizuneko

elkarrizketen hasiera izango dira (Guibourg, 2008). Elkarreragin horietan, haurrak soinu desberdinak igorri egiten ditu, ondoren, haurra isiltzen denean, zaintzaileak hartzen du hitza eta horrela hurrenez hurren. Modu honetan, haurrak poliki-poliki elkarrizketa baten oinarriak barneratzen joango da (Spidell eta Thalenberg, 2013).

Gutxi gorabehera bost hilabete inguru dituztenean, haurrek zenbait soinu entzun eta segituan imitatzekeo gai dira. Haurren bokalizazio gehienak elementu silabiko isolatuak dira, kontsonante batez eta bokal batez edota bokal eta kontsonante batez osatuak (Owens, 2003). Bokalizazio hauei zizakadurak deitzen zaie eta ahozketasuna lantzeko praktika garrantzitsuak dira, aurrerago baliagarri izango zaien artikulazio-errepertorio bat lantzea ahalbidetzen dutelako (Ituero eta Casla, 2017).

7-12 hilabete

Sei eta zazpi hilabete bitartean, “laleoren” fasean barneratzen dira, bertan haurrak kate silabikoak, errepikatuak eta luzeak sortzen hasten dira eta horietan ama-hizkuntzaren soinuak nagusitzen dira (Guibourg, 2008). Une honetan, poliki-poliki beraien ama-hizkuntzari ez dagozkion fonema guztiak desagertzen doaz, keinuen hizkuntza geroz eta ageriagoa izanez, adibidez, haurrak ezezkoa buruarekin adierazten hasten dira, eskuarekin agurtu egiten dute, musuak bidaltzen dituzte eta objektuak seinalatzen hasten dira (Owens, 2003).

Bederatzi hilabetera gutxi gorabehera, haurrak “ekoalia” izeneko fasean sartzen dira, bertan komunikazio-testuinguru desberdinetan erabiltzen diren eta elkarren artean kateatutak dauden egitura silabiko berriak erreproduzitzeko gai dira (Guibourg, 2003). Garrantzitsua da, haurrek esaten dutena ez ulertu arren, helduak hitz egiteko modu horiei erantzun bat ematea, pixkanaka soinu horiek esanahi bat har dezaten eta haurrek elkarrizketaren eta txanden munduan murgiltzen jarrai dezaten (Ituero eta Casla, 2017).

Etaparen amaieran, haurren ekoizpen fonetikoak helduenaren gero eta antz handiagoa dute, gehien bat soinuak imitatzekeo eta intonaziorako geroz eta gaitasun handiagoa dutelako. Gainera, ekoalia faseari esker haurrak

hizkuntzaren oinarriak finkatzen ditu, ondoko etapako hizkeraren eztandari hasiera emanez (Guibourg, 2008).

12-24 hilabete

Hamabi eta hemezortzi hilabete bitartean, hizkeraren eztanda ematen da, hau da, hurrek lehenengo hitzak esaten hasten dira. Erabiltzen dituzten hitzak, helduen ekoizpenen antzeko konfigurazio fonetikoak izan arren, hitzak berak duen balioan baino, hitz horren seinaleari edota keinu komunikatiboari egiten dio erreferentzia (Guibourg, 2008). Etapa honetan adibidez, galdera eta jarraibide sinpleei erantzuten, modu espontaneoan abesten edota kanta-marmarrean eta egunerokotasunean erabiltzen dituzten gauzen izenak adierazten (janaria, gorputz-atalak...) hasten dira (Owens, 2003). Gainera, nahiz eta ahoskera perfektua ez izan, bi hitzez osatutako esaldi sinpleak era erreproduzitzen hasten dira. Horregatik, helduak testuinguru partekatua kontuan hartzea garrantzia handia du, azken finean, testuinguruari esker, helduak hurrek adierazi nahi duten hori suposatu dezaketelako (Spidell eta Thalenberg, 2013).

Hemezortzi hilabeterekin poliki-poliki beraien hiztegia aberasten doaz, hau da, gutxi gorabehera adin honetan beraien hiztegiak 50-100 hitzek osatzen dute (Spidell eta Thalenberg, 2013). Izan ere, etapa honetan haurrak helduen hizkera ulertzeko duten gaitasuna askoz ere handiagoa da, adierazteko duten gaitasuna baino. Hain zuzen ere, askotan hurrek helduak uste dutena baino askoz ere gehiago ulertzen dute, hau da, batzuetan beraien interesak helduek esandakoarekin kontraesanean daudenean, haurrak frogatzen dutena baino askoz ere gehiago dakite (Guibourg, 2008).

Adin horretan, hurrei errutinak eta gertatuko dena aurreikustea asko gustatzen zaie, honi esker ordenaren eta denboraren oinarritzko zentzua garatzea ahalbidetzen die. Bi urterekin jada beraien ingurune hurbila ongi ulertzen dute, hala nola, ohiko gertaerak iragartzeko eta objektu ezagun baten kokapena zein den jakiteko gai dira. Askotan, hurrek independentzia-nahi handia izaten dute, nahiz eta, egunerokotasunean ematen diren zaintzarekin erlasionaturiko zenbait ekintzetan helduaren beharra izan (Owens, 2003).

3 urte

Etapa honetako hurrek hizkera eta hizkuntza modu askotara erabiltzen dute. Gainera, beraien hiztegiaren hazkundera izugarria izaten da, hau da, 1000 hitz inguruko hiztegi produktiboa dute (Owens, 2003). Bi eta hiru urte bitartean, hurrek hizkuntzaren gramatika garatzeko prozesuan aurrerapen handiak izaten dituzte eta beraz erraztasun handiagoaz hitz egiten hasten dira, betiere esaldi laburrak egiteari utzi gabe (Karmiloff eta Karmiloff-Smith, 2005). Gramatika aurrerapen horiek esperimendatzen doazen heinean, hurrek bere adierazpenak galderetan bilakatzen hasten dira, komunikazio egoera desberdinetan rol aktiboagoa hartuz (Ituero eta Casla, 2017).

2.4. Ahozkoaren eta komunikazioaren garapena errazteko eta sustatzeko moduak

2.4.1. Atxikimendu seguru baten garrantzia

Haur Hezkuntzako lehenengo ziklo honen hasieran haur askok eskolara etortzen dira lehenengo aldiz. Egokitzapen aldia, oro har, hauraren eta atxikimendu irudiaren arteko banaketan datza. Bizipen hau haurrentzako eta baita familientzako ere aldaketa handia izaten da. (Quinto, 2010). Oso garrantzitsua da haurrak erreferentziako helduekin lotura afektibo seguru bat izatea, honi esker haurrak giroa aztertzeke eta baita bere berdinekoekin eta helduekin harremana izateke interes handiagoa izaten baitute. Izan ere, lotura afektiboak indartzeko beharrezkoa den ezaugarri garrantzitsuena hauraren eta helduaren arteko komunikazioa da (Mariscal, 2010).

Egokitzapen-aldiaren lehenengo asteetan, oso garrantzitsua da helduak ikasle bakoitzarekin lotura seguru bat eraikitzeke, behar duen denbora hartzea. Behin hori lortuta, haurrak esploratzera animatu behar ditu eta atxikimendu irudiaren beharra sentitzen dutenean, irakasleak laguntzeke eta babesteko prest egon behar dira. (Garrido, 2006).

Ainsworth, Blehar, Waters eta Wallek (1978, apud Garrido 2006, 494. or.) hauraren atxikimenduaren lehen sailkapena garatu zuten eta hiru motetan sailkatu zituzten. Alde batetik, atxikimendu segurua duten hurrek esplorazio aktiboko jokabideak izaten dituzte eta nahiz eta atxikimendu irudiarekiko banaketan larritasuna sentitu, itzultzerakoan erantzun positiboa izaten dute.

Bestetik, atxikimendu iheskorra duten hurrek urruntze jokabideak izaten dituzte, gurasoetatik banatzerakoan ez dute negarrik egiten, gehienetan hurbileko kontaktua saihesten eta arreta guztia jostailuetan jartzen dute. Amaitzeko, atxikimendu anbibalentea duten hurrek gurasoetatik banatzeko zailtasunak izaten dituzte, adibidez, antsietatea eta protesta jokabideak, amorrua erakusten dute eta negarraren bidez adierazten dute. Gainera, ez dira erraz lasaitzen eta berriz ere esplorazioari ekitea asko kostatzen zaie.

Haurrak atxikimendu mota bat edo beste bat izateak, helduak haurren beharrak asetzeko ematen dizkien erantzunen arabera izango da, hau da, erantzun hauek kalitatezkoak izanez gero, ikasleek helduarekiko atxikimendu seguru bat osatzea lortuko dute (Garrido, 2006). Azken finean, haurrak giro seguru batean eta babestuak sentitu behar dira, beraien ingurua esploratzen hasi ahal izateko eta horrek gauza berriak ikastera bultzatzeko (Quinto, 2010). Haur Hezkuntzako gela batean oso garrantzitsua da hezitzaileak hurrekin egunerokotasunean dituen une pribilegiatuez baliatzea beraien elkarrizketa txikiak izateko, adibidez, pardela aldatzeko momentuan, lo-kuluxkan, bazkal orduan eta abar. Modu honetan, lotura afektibo horiek sendotzea eta baita haurrak hizkuntzara poliki-poliki gehiago hurbiltzea ere lortuko du (Ituero eta Casla, 2017).

2.4.2. Testuinguru soziala

Haurren komunikatzeko aukerak areagotzen diren heinean, beste eremu desberdin batzuetara murgiltzen hasten dira, hala nola, testuinguru sozialera eta baita emozionalera ere (Ituero eta Casla, 2017). Azken finean, hizkuntza, kode partekatua da eta bere helburu nagusia pertsonen arteko transmisio-kodea izatea da. Modu honetan, erabiltzen dutenei ideiak, sentimenduak eta desioak gainontzekoekin transmititzeko aukera ematen die. (Owens, 2003).

Esan bezala, hurrek beraien ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasun handiagoa lortzen duten heinean, komunikazio gaitasunari esker, garapen sozialaren arloan helduekin edo beraien berdinekoekin izaten dituzten elkarreraginak kalitate hobekoak eta konplexuagoak izaten dira, poliki-poliki negoziatzeko eta jolasteko aukerak eta gaitasunak handituz (Ituero eta Casla,

2017). Izan ere, haurren bizitzan zehar egoera komunikatibo eta interakzio mota desberdinak ugaritzea beharrezkoa da, adibidez, eskola bezalako eremu berriak ezagutzea, bere adinekoekin interakzioak izatea eta asmo komunikatibo berriak agertzea (Huarte eta Ozeginjauregi, 2012).

2.4.3. Begirada

Hitzez gain, gizakiak komunikatzeko modu desberdinak erabiltzen dituzte, hau da, askotan, begirada edo keinu batek hitzek adierazten dutena baino informazio gehiago transmititzen dute (Monfort eta Monfort, 2002). Begirada komunikazioaren osagai garrantzitsua da, gurekin hitz egiten duten pertsonen begirada jarraituz, adierazi nahi dutena interpretatzeko lagungarria izaten baita (Ituero eta Casla, 2017). Oso garrantzitsua da beste pertsona batekin komunikatzen garenean, begietara elkarri begiratzea, besteak entzunda sentitzeko eta esaten ari dena guretzako garrantzia duela transmititzeko (Mateos, 2003).

Haurrak giza interakzioei erraz erreakzionatzeko gaitasuna dute, bereziki, lotura goiztiarren esperientzia markatzen duten aurrez-aurreko elkarrekintzak, afektuz beterik daudenak eta haurraren erreakzio desberdinak pizten dituztenak (Geddes, 2010). Elkarrekintza hauek, gehienetan, elikadurarekin, higienarekin eta loarekin lotutako egoeretan nabarmentzen dira. Izan ere, egunerokotasuneko une horietan haurrak irakaslearen arreta berenganatzeko aukera duelako. Beraz, haurren arreta guztia irakaslearen begiradan eta baita hitzetan ere zentratzen denez, momentu hauek komunikazioa garatzeko aprobetxatzea oso baliagarria izan daiteke (Bigas, 2008).

2.4.4. Ahotsaren karakterizazioa

Hizkuntza-kodea erraztu dezakeen beste komunikazio-alderdi bat kode paralinguistikoak dira, hala nola, intonazioa, enfasia, hitz egiteko abiadura eta etenaldiak. Hauek hizketan gainjartzen dira eta hitzunaren jarrera edo emozioak zeintzuk diren adierazten dute. Intonazioa kode paralinguistiko guztien artean konplexuenetarikoa bat da, honek aldarteak eta perpausaren estiloa zein den erakusteko erabiltzen baita (Owens, 2003). Gainera, helduek sortzen dituzten interakzio espazioei esker eta baita erabiltzen dituzten intonazio-aldaketei eta

kontrastei esker ere, poliki-poliki haurrak, helduek egiten dituzten soinu guztiak hautematen eta errepikatzen saiatzen dira (Ituero eta Casla, 2017).

Batzuetan, heldu batek haur batekin hitz egiten duenean, gainontzekoekin egiten duena ez bezala, modu berezi eta desberdin batean mintzatzen da, hau da, esaldien intonazioan aldaketa ugari egiten ditu, eten gehiago erabiltzen ditu, adierazpen laburragoak egiten ditu, errepikapen gehiago erabiltzen ditu eta abar. Hitz egiteko modu honi “maternes” esaten zaio eta haurren arreta mantentzeko oso lagungarria izaten da, geroz eta hizkuntza prozesuaren garapenera gehiago hurbilduz (Ituero eta Casla, 2017).

2.4.5. Entzuketa aktiboa

Gizakien entzumen-funtziotik eratorritako nahitaezko prozesua entzutea da, izan ere, beste aldagai batzuekin lotura izan dezake, hala nola, hartzailearen arreta, interesa eta motibazioarekin. Entzuketa aktiboak, ikasleek irakaslearengan duten konfiantza areagotzea ahalbidetzen du, hau da, haurrak entzunak sentitzen badira, onartuak eta erosoagoak sentituko dira (Guerrero, 2005).

Oso garrantzitsua da irakasleak haur bakoitzaren erritmoa ezagutzea, errespetatzea eta entzuketa aktiboa izateko jarrera hartzea. Batzuetan, irakasleak, presak direla eta, nahiko intrusiboak izaten dira eta erantzuna beraien kabuz emateko eta baita haurren esku-hartzeak eteteko joera dute. Beraz, oso garrantzitsua da haurrei erantzuteko denbora eskaintzea, modu honetan, interesa eta entzuketa lehenetsiz (Ituero eta Casla, 2017). Azken finean, irakasleak haurrak entzuten dituen neurrian, ikasle bakoitzaren maila zein den ondorioztatu dezake eta ondorioz, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko aukera du. Modu honetan, haurrei geroz eta laguntza gutxiago eskaintzen die, haiek egunerokotasunean sortzen zaizkien egoera desberdinen aurrean geroz eta autonomia handiagoaz jokatu aha izateko (Del Río, 1993).

Horretaz gain, entzuketa aktiboak komunikazioari eusten eta baita sentimenduak eta esperientziak sakontasun handiagoz partekatzeko aukera ematen du. Gainera, entzunda sentitzen den haur batek, irakasleak esaten duenari arreta eta interes handiagoz entzuteko gaitasuna izango du (Guerrero,

2005). Batzuetan, haurrak esan behar dutena ahaztu egiten dute, momentu horietan, irakasleak, laguntza eskaini dezake irribarre eginez eta esan duena beste hitz batzuekin errepikatuz, noski, tematu gabe eta goxotasunez. Modu honetan, esaten dutena garrantzia duela ohartuko dira eta horrek gainontzekoekin komunikatzeko gogoia sustatuko du (Ituero eta Casla, 2017).

2.4.6. Galdera eragileak

Haurrekin elkarrizketa bat ematen den bitartean, garrantzitsua da irakasleak zenbait egoeretan haien mailara egokitzea, adibidez, egiten zaien galdera kopurua eta baita mota ere kontuan hartzea beharrezkoa da. Izan ere, egiten zaizkien galderak asko badira, oso orokorrak edota galdera luzeegiak badira, hurrek galdera horiei eustea eta erantzun ahal izatea zailagoa da. Azken finean, galdera asko egiteak ebaluazio- eta galdeketa-sentsazioa eragiten du eta horrek, komunikazioa oztopatzen du (Ituero eta Casla, 2017).

Horregatik, irakasleak haurren mailetara egokituak dauden galderak egitea oso garrantzitsua da, adibidez, momentu zehatz horretan gertatzen ari den egoera bati buruz edota irakurtzen ari den liburuari buruz. Galdera hauek errazak eta zehatzak izan behar dira, beraien memoria oraindik ere garatzen ari direlako eta oroitzeko gaitasuna ez dutelako helduena bezain garatua (Ituero eta Casla, 2017).

2.4.7. Haurrek egiten dituzten akatsen kudeaketa

Komunikazioa hizkuntzaren formaltasunarekin zerikusia zenbait alderdien aurretik lehenestea oso garrantzitsua da. Askotan zuzenketek komunikazioa mozteko eta haurraren ikaskuntza oztopatzeko joera dute, esate baterako, garrantzia mezuaren moldean zentratzen duelako eta ez edukian (Ituero eta Casal, 2017). Haurraren ikaskuntza ez oztopatzeko, irakasleek egiten dituzten zuzenketa edo ekarpenak elkarrizketak sustatzeko, elkarrizketa hauek aberasteko, ideia berriak proposatzeko edota esandakoari zabalkuntza berriak proposatzeko helburuarekin egin behar dituzte (Huarte eta Ozeginjauregi, 2012).

Haur Hezkuntzako etapa honetan haurrek hizkuntzarekin lehenengo kontaktua izaten denez, askotan oso ohikoak diren akatsak egiten dituzte,

adibidez, hitz baten silabak elkar-trukatzeak, erregularotasun akatsak egitea edota eremu semantiko berdineko hitzak, hitz bakar batekin adieraztea (Ituero eta Casal, 2017). Dena den, irakasleek haurrak egunerokotasunean izaten dituzten akatsak zuzendu behar izanez gero, birformulazioa da modurik aproposena haurrari bere hizkuntza garatzen laguntzeko eta hau ez oztopatzeko, hau da, haurrak esandakoa berreskuratu eta bere ekoizpenak osatuz eta aberastuz (Huarte eta Ozeginjauregi, 2012).

3. HELBURUAK

- Egunerokotasuneko egoera eta errutinak aprobetxatuz (elkarrizketak, ipuinaren momentua, abestiak...), bi urteko gelan interakzioak kalitatez eta kantitatez sustatzea eta hobetzea, haurren ahozotasuna eta hizkuntza hobetzeko.
- Komunikazioaren bidez, ikasgelan giro egokia eta konfiantzazkoa lortzea, irakaslearen eta haurraren arteko atxikimendu segurua sortzeko eta poliki-poliki hau indartzeko.
- Entzuketa aktiboaren bidez, haurrak bere berdinekoek eta helduek adierazten dituzten mezuak egoki ulertzea, poliki-poliki hizkuntza barneratzeko eta hau gehiago erabiltzeko.

4. BEHAKETAREN TESTUINGURUA

4.1. Ikastetxearen ezaugarriak

Aztertzen ari naizen gela CEIP Errekabarri HLHI eskolako Haur Hezkuntzako bi urteko gela bat da. Eskola hau Gasteizen kokatuta dagoen eskola berria da, hain zuzen ere, Salburua auzoan. 2013-2014 ikasturtean sortu zen eta hasiera batean Zaramaga auzoan kokatuta zegoen, eraikin berria Salburuako auzoan eraiki zuten arte. Salburua 19.528 biztanleria duen bizitegi- auzo bat izateaz gain, inguru naturalez inguratuta dago, hau da, hainbat urmaelez osatutako hezegune garrantzitsu bat da. Gaur egun, Errekabarri eskola hiru lerroz osatuta dago eta ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako 5. maila zabaldu dute, hau da, eskola berria denez, urtez-urte maila berri bat irekitzen doaz. Errekabarri ikastola etengabe egokituz eta formatuz joango den eskola

berritzailea eta gaurkotua da, hau da, aniztasunean, inklusioan, aukera berdintasunean, ekitatean eta hezkidetzan oinarritutako ikastola publikoa, laikoa eta akonfesionala.

Atal linguistikoari erreparatuz, Errekabarri ikastolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza “D” ereduan eskaintzen da, hau da, euskara da eskola honetan erabiltzen den hizkuntza ofiziala. Modu honetan, euskarari berebiziko lehenetsunezko tratua ematen zaio, euskararen normalkuntza bultzatzeko eta indartzeko eta euskara gainontzeko hizkuntzen ikaskuntzarako abiapuntu gisa bilakatzeko helburuarekin. Izan ere, euskara, euskal kultura eta baita gainontzeko kulturak eta hizkuntzak ere ezagutzeko eta transmititzeko funtsezko elementua baita.

4.2. Ikasleen ezaugarriak

Esan bezala aurtengo praktikak CEIP Errekabarri HLHI eskolako bi urteko gelan gauzatu ditut, bertan 23 haur dira (11 neska eta 12 mutil). Talde honetako haurrak 2018. urtean jaiotakoak dira, honek esan nahi du 2021. urte honetan zehar hiru urte beteko dituzten haurrak direla. Lan honetan zehar haur bakoitzaren hizkuntzaren garapen ebolutiboa kontuan hartuko denez, oso garrantzitsua da ikasgela osatzen duten haurren jaiotza-hilabetea ezagutzea, haien erritmoa zein den behatzeko eta errespetatzeko eta baita ere proposatuko diren jarduerak haur bakoitzari egokitu ahal izateko. Horretarako, urtarrila, hilabeteak zenbatzeko orduan erreferentzia gisa hartuko dut, bertan praktikak hasi nituelako.

- **Urtarrilean jaiotako haurrak:** 36 hilabeteko 2 haur
- **Otsailean jaiotako haurrak:** 35 hilabeteko 5 haur (horietatik bi bikiak dira)
- **Martxoan jaiotako haurrak:** 34 hilabeteko 2 haur
- **Apirilean jaiotako haurrak:** 33 hilabeteko 3 haur (horietatik bi bikiak dira)
- **Maiatzean jaiotako haurrak:** 32 hilabeteko 2 haur
- **Ekainean jaiotako haurrak:** 31 hilabeteko haur 1
- **Uztailean jaiotako haurrak:** 30 hilabeteko 2 haur

- **Irailean jaiotako haurrak:** 28 hilabeteko haur 1
- **Azaroan jaiotako haurrak:** 26 hilabeteko 3 haur
- **Abenduan jaiotako haurrak:** 25 hilabeteko 2 haur

Oso garrantzitsua da bi urteko gela batean dauden haur guztien ama hizkuntza zein den ezagutzea, gela honetako haur guztien ama hizkuntza adibidez, gaztelera da. Aipatu beharra dago, bi ikasleek ama hizkuntza gaztelania izan arren, bere etxean batzuetan arabiera ere erabiltzen dutela. Beraz, etxeko hizkuntza eta eskolakoa desberdina dutela ondorioztatu dezaket.

Bi urteko geletan erabiltzen duten metodologiari eta antolakuntzari erreparatuz, ez dute proiektuka lan egiten, hau da, bertan erabiltzen duten metodologia jolasean eta zirkulazio librean oinarritzen da. Hala ere, astean behin bikoizketak izaten dituzte, esaterako, taldean bitan banatzen da eta batzuk gelan zirkulazio librean dabilen bitartean, beste talde erdiak irakasleen artean prestatutako jarduera ezberdinak egiten dituzte, adibidez, instalazioak, esperimentazioak, ipuin kontaketak eta abar.

Haurren ahozketasunaren behaketarekin hasi aurretik, gelako testuinguru soziala aztertzea beharrezkoa da. Gelako espazioari dagokionez, jolasteko, esperimentatzeko eta ikertzeko gogoak piztuko duen espazio zehaztua eta mugatua da, hau da, espazioak biziak dira eta momentuko errealitatera edo beharretara egokitzeko moldagarriak dira. Gainera, gelan urte osoan zehar mantentzen diren espazio ezberdinak daude, hala nola, mugimendurako espazioa, haretokia, jolas sinbolikoaren espazioa, eraikuntzen espazioa, errepresentazioaren espazioa eta modelaketaren espazioa.

5. BEHAKETA

Jarraian, arreta haurren ahozketasunaren garapenean jarriko dut, bertan, Haur Hezkuntzako bi urteko hurrek beraien egunerokotasunean gainontzekoekin komunikatzeko egiten dituzten soinuak, zizakadurak, sortzen dituzten esaldiak eta baita suertatzen zaizkien zailtasunak aztertuko ditut. Horretaz gain, irakaslearen jarrerarekin zerikusia duten eta haurren ahozketasunaren garapenean eragiten duten zenbait alderdi ere aztertuko dira, hala nola, ama-hizkuntza eta ikastolako hizkuntza desberdinak izateak gelan

duen eragina, irakaslearekin atxikimendu seguru bat sortzearen garrantzia eta irakasleak ikasleek beraien ahozkoasuna modu eraginkor batean garatzeko eskaintzen dien andamiajea, hala nola, hurrekin hitz egiten duenean galdera eragileak egitearen garrantzia eta hurrek egiten dituzten akatsei zuzenketa egiteko, irakasleak erabiltzen dituen estrategia desberdinak aztertuko dira.

5.1. Haurren ahozkoasuna aztertzen

Ahozkoasunari dagokionez, gela honetan egunero sistematikoki eta momentu oro lantzen duten arlo bat da (topagunean, errutinetan, abestiak abesten ditugunean, zirkulazio librean aritzen direnean...), azken finean ahozkoasuna Haur Hezkuntzako etapa honetan garrantzia berezia duelako. Izan ere, talde oso handia denez, jarduera gehienak talde handian gauzatzen dira eta horrek askotan haur bakoitzaren ahozkoasunaren garapena aztertzeko zailtasunak sortzen ditu. Normalean topagunean bezalako talde handiko jardueretan gaudenean, irakasleak hartzen du hitza eta galderen bidez ikasleen parte hartzea bilatzen du. Topagunea gelaren erdigunean kokatzen da eta bertan, haur bakoitzak bere lekua du eta adinaren arabera kokatuta daude.

Lehen aipatu bezala, Haur Hezkuntzako bi urteko geletan errutinak lantzen hastea oso garrantzitsua da, izan ere, errutinak egunero modu berean errepikatzen diren jarduerak edo egoerak direnez, hurrek hauek barneratzen dituzte, poliki-poliki beraien kabuz gertatuko dena aurreikusiz. Azken finean, hurrek errepikapena eta imitazioaren bidez pixkanaka beraien ingurumeneko hizkuntza barneratzen hasten direlako, oroimena geroz eta gehiago garatuz.

1.1. Adibidea

Egun batean, denak topagunean bilduta geundela, irakasleak “Otso txiki gose da” deituriko ipuina irakurtzea erabaki zuen. Ipuin hau, kurtso hasieran askotan irakurtzen zien eta hurrei asko gustatzen zitzaien. Ipuin honetako protagonista gosetuta dagoen otso bat da eta istorioan zehar haurrak jaten ditu, nazkatu egiten den arte. Orduan, Mikelek (33 hilabeteko haurra) ipuinaren azala ikusi orduko, izugarriko gogoekin honako hau esan zuen:

- Mikel (33 hilabete): **Uno nene a come! Uno nene a come! Aum! Aum!**
(Jaten egongo balitz bezalako soinu eta keinuak eginez).

Adibide honetan hurrek oroitzapenerako duten gaitasun handia aztertu dezakegu, hau da, nahiz eta irakasleak istorio hori zenbait hilabeteetan ez irakurri, haur honek, soilik ipuinaren azala ikustearekin, istorioan gertatzen dena gogoratzeko eta ondoren hitzen bidez adierazteko gaitasuna izan baitu. Azken finean, adin honetako hurrekin lan egiten dugunean batez ere, errepikapenak berebiziko garrantzia dute, errepikapenen bidez, haurrak poliki-poliki hizkuntza, ipuinak, errutinak eta abar barneratzen dituztelako.

Orokorrean, gela honetako haur gehienak hitz egiteko gai dira, hala ere, badaude haur batzuk soinuak eta zizkadurak egiten dituztenak, hitz solteak soilik esaten dituztenak eta baita badago haur bat osasun arazo baten ondorioz hizkuntzaren garapenean atzerapen bat duena, eta hitzak esan beharrean soinuak egiten dituena. Berarekin elkarrizketa bat izateko momentuan euskarri bisualak oso garrantzitsuak izaten dira, elkarren artean ulertu ahal izateko eta nahi duena erraztasun handiagorekin adierazi ahal izateko.

1.2. Adibidea

Uxoak 32 hilabeteko neska da, esan bezala osasun arazo baten ondorioz ahozkotasunean atzerapena du. Behin, zirkulazio librean liburutegiaren espaziora gerturatu eta animalia desberdinak agertzen ziren asmakizun ipuin bat aukeratu zuen. Berarekin batera irakurtzeko gerturatu nintzen eta ipuina kontatzen ari ginela honako hau gertatu zen:

- Irakaslea: **Zein animalia da hau?**
- Uxoak (32 hilabete): **Gggg! ggg!** (Animaliak egiten duen soinua eta keinuak imitatzen saiatzen da).
- Irakaslea: **Bai! Hartza da! Hartza!**
- Uxoak (32 hilabete): **Aa a!**

Ikusi daitekeen moduan nahiz eta Uxoak beraren ahozkotasuna garatzeko zailtasunak izan, gainontzekoekin komunikatzeko intentzioa duela antzeman

daiteke. Jada, elkarrizketen oinarriak ulertzen eta barneratzen hasi da, izan ere, irakasleak egiten dizkion galderak erantzuten dituelako, soinu eta keinu desberdinak igorritz. Horretaz gain, entzuketa aktiboaren bidez irakasleak esaten dituen hitzak poliki-poliki barneratzen ditu, ondoren imitatu ahal izateko, hau da, adibide honetan ikus daitekeen moduan, irakasleak “hartza” hitza behin eta berriz errepikatzen du, modu honetan, haurrak “hartza” hitzan nagusitzen den bokala ahoskatzen saiatuz.

Ondorengo tauletan, bi urteko haurrek beraien artean komunikatzeko gaitasunean dituzten desberdintasunak azalduko dira. Azken finean, haurrak ikasturte berean egon arren, badaude haurren ahozkoitasunaren arteko desberdintasun ugari, gehien bat urte hasieran jaiotako haurretan eta urte amaieran jaiotako haurretan nabaritzen da, betiere salbuespenak-salbuespen. Urte hasieran jaiotako haur gehienek adibidez, beraien ama-hizkuntzan gertaerak azaltzera ausartzen hasten dira eta esaldi estrukturatuagoak egiteko gai dira.

1.3. Adibidea

Bi urteko geletan haurrek familiarekin egindako argazki-albuma gelara ekartzen dute, hau Haur Hezkuntzan erabiltzen den baliabide oso garrantzitsua da, modu honetan, haurrek familia eta eskolaren arteko loturak nabari ditzakete. Gainera, argazki-bilduma hauek triste daudenean, beraien gurasoak faltan botatzen dituztenean edota irakasleei eta lagunei beraien ingurunea nolakoa den eta zeintzuk osatzen duten erakusteko erabiltzea asko gustatzen zaie. Behin, Asia izeneko 36 hilabeteko neska bat beraren argazki-albuma berarekin batera ikustera gonbidatu eta xehetasun osoz argazki bakoitzean agertzen ziren pertsonen izena, lekua eta zertan ari ziren azaltzen zidan. Hau izan zen eduki genuen elkarrizketa bat:

- Asia (36 hilabete): **Esta es mi abuela.**
- Irakaslea: **Eta zure amona nola deitzen da?**
- Asia (36 hilabete): **Abuela Pili. Y aquí está el paque.**
- Irakaslea: **Mmm..** (Buruarekin baiezkoko keinua egiten duen bitartean).

- Asia (36 hilabete): **Y en paque subimos po aquí y nos tiamos po el tobogán.**

Neska hau gelako zaharrena da eta kasu honetan ahozkotasanaren gaitasunean garapen handia duela antzeman daiteke. Elkarrizketa honetan ikusten den moduan, haurrak egiten dituen esaldiak jada esaldi konplexuagoak eta luzeagoak dira. Honetaz gain, aztertu daiteke zenbait fonema ahoskatzeko zailtasunak dituela, hala nola, “r” eta “rr” fonemak. Haur Hezkuntzako etapa honetan horrelako zailtasunak izatea oso ohikoak izaten dira eta normalean haurrak bere ahozkotasuna garatzen duen heinean akats hauek desagertzen joaten dira.

1.4. Adibidea

Maiden 35 hilabeteko neska bat da eta egun batean patioan jolasten ari zela, niregana negarrez gerturatu zen:

- Maiden (35 hilabete): **Quero moto, quero moto...** (Negarrez eta motorretan dabiltzan haurrak behatzarekin seinalatuz)
- Irakaslea: **Motorrak orain okupatuta daude Maiden. Itxoin beharko duzu apurtxo bat, lagun baten motorra libre geratu arte. Bai?**

Pixka bat geroago, Maidenrek motor bat libre zegoela ikusi eta motorra eskuarekin seinalatuz, garrasika hasi zen:

- Maiden (35 hilabete): **Aquí moto! Aquí moto!**
- Irakaslea: **Bai, motorra libratu egin da!**

Maidenrek motorra lortu eta niregana ziztu bizian bueltatu zen oihukatuz:

- Maiden (35 hilabete): **Tego motoda! Tego motoda!**
- Irakaslea: **Ala! Motorra lortu duzu!**

Haur honek jada komunikatzeko asmoarekin, bere ama-hizkuntzan bi hitzez osatutako esaldi sinpleak egiten hasi da. Gainera, berak adierazi nahi duen mezua irakasleak jasotzeko helburuarekin, ahozko hizkuntza erabiltzeaz gain,

gorputz hizkuntza ere erabiltzen du, hitz egiten duen bitartean motorra seinalatzen baitu. Adibide honetan ikus daitekeen moduan, haurrak hasiera batean euskarazko “motorra” hitza ez zuen ezagutzen eta bere ama-hizkuntzako “moto” hitza erabiltzen zuen. Poliki-poliki irakasleak haurrak esaten zuena birformulatuz eta “motorra” hitza behin eta berriro errepikatuz, haurrak hitz hori barneratu egin du eta hau erabiltzen saiatu da. Aurreko adibidean bezala (1.3. Adibidea), haur honek ere “rr” fonema adierazteko zailtasunak dituela antzeman daiteke.

1.5. Adibidea

Goiz batean Unax (30 hilabeteko haurra) eta Iker (26 hilabeteko haurra) elkarrekin jolasten ari zirela, hau izan zen bien artean izan zuten elkarrizketa txikia:

- Unax (30 hilabete): **“Ui! Edta lloviendo en da calle”**
- Iker (26 hilabete): **“Veve no! Veve no!”** (buruarekin ezezko keinua egiten duen bitartean).
- Unax (30 hilabete): **“Si llove en da calle, si llove!”**

Adibide honetan ikus dezakegun bezala, nahiz eta bi haur hauek ikasturte berdinean egon eta bien arteko adin desberdintasuna soilik lau hilabetekoa izan, beraien ahozkotasunean desberdintasun nabariak daude. Alde batetik, Unaxek jada bi hitz baino gehiagoko esaldi estrukturatuagoak adierazten hasi da. Ikerrek berriz, bere lehenengo hitzak esaten hasi da eta honekin batera hitzen elkarketekin esperimentatzen hasi da, esaldi txikiak sortuz. Gainera, bere gorputza erabiltzen du esaten duena hobeto ulertzen lagunduz.

Urte amaieran jaiotako haurren ahozkotasunean zentratuz, batzuk oraindik ere “laleoaren fasean” kokatzen dira eta kate silabiko errepikatuak adierazten dituzte; beste batzuk berriz, oraindik ere ez dituzte esaldi estrukturatuak sortzen, baina gertaerak azaltzeko hitz solteak erabiltzeko gai dira, bakarrizketak izaten dituzte eta baita ere batzuetan beraien hizkuntza propioa asmatu egiten dute.

1.6. Adibidea

Gure gelako haur txikiena Fatima izeneko neska da eta 25 hilabete ditu. Psikomotrizitate gelara joaten garenean neska honek ez du gainontzeko hurrekin jolasten, normalean, bere kabuz dorreak eraikitzen edo bere zapatilak eskuan hartuta gelan zehar paseatzen egoten da. Psikomotrizitate gelan, haur guztiak zapatilak kendu eta sarrerako izkina batean utzi behar dituzte.

Behin, Saioak, 25 hilabete dituen beste neska bat, Fatimaren zapatila bat hartu eta psikomotrizitate gelan zehar alde batetik bestera korrika hasi zen. Fatimak Saioa harrapatu ezin zuela ikusita, niregana negarrez gerturatu zen. Aurretik gertatutako guztia behatu nuen eta haurra oso larrituta zegoenez, lehenik eta behin hau lasaitzen saiatzea erabaki nuen, goxotasunez berarekin hitz eginez eta laztantzen. Behin haurra lasaiago zegoela, berarekin elkarrizketa bat hastea erabaki nuen, haurrak gertatutakoa azaltzen saiatzeko asmoarekin:

- Irakaslea: **Zer gertatu da laztana?**
- Fatima (25 hilabete): (Berriro ere negar egiten hasteko aurpegi keinua jarri zuen eta mainaka hasi zen).
- Irakaslea: **Triste zaude ezta?**
- Fatima (25 hilabete): (Buruarekin baiezko keinua egin zuen).
- Irakaslea: **Bai, triste zaude. Zer gertatu da? Zer egin dizu Saioak?**
- Fatima (25 hilabete): **Ababa babala...** (Beste haurraren izena antzeman zuenean, burua altxatu eta zizakadurak egiten zituen bitartean, negarrez hasi zen berriro ere, buruarekin baiezko keinua eginez. Ondoren, bere oinak begiratzen eta seinalatzen zituen, mainak eginez).
- Irakaslea: **Bai, Saioak zapata kendu dizu, bai. Bilatuko dugu zapata bion artean? Ea, non dago zapata?**
- Fatima (25 hilabete): (Buruarekin baiezko keinua eginez, hatzarekin gelako iskina baterantz seinalatu egin zuen, nire eskua hartu eta berarekin joateko keinua egin zidan).

Adibide honetan ikus daitekeen bezala, haurrak oraindik ere ez du egunerokotasunean bizitzen dituen egoeretan sentitzen duena hitzen bidez adierazteko gaitasuna. Izan ere, bere emozioak adierazteko zizkadurak eta negarra erabiltzen ditu, hau da, “laleoaren fasean” gertatzen den bezala, haurrak kate silabiko errepikatuak erabiltzen ditu nahi duena adierazteko helburuarekin. Horretaz gain, gorputz-hizkuntza ere erabiltzen du; alde batetik, bere emozio eta sentimenduak adierazteko eta bestetik, irakaslearen arreta berenganatzeko eta adierazi nahi duen hori keinu desberdinen bidez argi geratzeko.

5.2. Irakaslearen papera

Haur Hezkuntzako gela bateko hurrek garapen egoki eta osasuntsu bat izateko, ezinbestekoa da hezitzailearen eginkizuna, eta are gehiago bi urteko gela batean. Izan ere, ikasgela honetara iristen diren haur gehienentzat eskola-ibilbidea hemen hasten baita. Beraz, irakasleak ibilbide honetan zehar haurrak laguntzea, zaintzea eta babestea ezinbestekoa da, egunero gauza berriak irakatsiz eta ikasiz.

5.2.1. Ama hizkuntza eskolako hizkuntzaren desberdina

Lehen aipatu bezala, gure gelako haur guztien ama hizkuntza gaztelania da. Honek haurrengan sortzen duen eragina, gehienak gainontzekoekin komunikatzeko gaztelania erabiltzen dutela da. Horregatik, oso garrantzitsua da Haur Hezkuntzako 2 urteko hurrekin ahozkoatasuna lantzeko eta garatzeko ahalegin eta lan handiagoa egitea. Hala ere, berebiziko garrantzia du irakasleak malgutasunez jokatzeko, hau da, batzuetan eta egoeraren arabera komunikazioari garrantzia ematea eta baita haur bakoitzaren momentua kontuan hartzea beharrezkoa da, betiere haurren ongizatea lehenetsiz. Adibidez, haurra oso urduri dagoenean, negar batean badago, hiztegia edo estruktura ulertzeko zailtasunak dituenean hizkuntza menperatzen ez duelako... egoera horietan haurra lasaitzeko eta hobeto sentitzeko helburuarekin, gaztelaniazko hitzak erabiltzea beharrezkoa da, modu honetan bien arteko komunikazioa sustatuz.

Aipatu beharra dago, nahiz eta gehiengoak etxeko hizkuntza gaztelania eduki, badaude guraso batzuk euskaraz badakitenak eta noizbehinka hurrei euskaraz hitz egiten dietenak, eta hori asko nabaritzen da, haurren euskararen

ulermenean bereziki. Horretaz gain, betiko estrukturak euskaraz egitea animatzen diegu, adibidez, egunerokotasunean errutinetan erabiltzen ditugun esaldi sinpleak errepikatzen saiatzen dira:

- Ura nahi dut
- Mukiak ditut
- Kaka dut
- Gehiago mesedez
- Mina daukat
- Itxita dago/ Irekita dago
- ...

5.2.2. Atxikimendu segurua eraikitzea

Atxikimenduak berebiziko garrantzia du Haur Hezkuntzako bi urteko haurrekin ahozketasuna lantzeko momentuan, hau da, hurrek ahozketasuna giro atsegin eta lasai batean garatzeko, lehenik eta behin helduarekiko atxikimendu egokia behar dute eta hori lortzeko denbora, pazientzia eta konfiantza beharrezkoak izango dira.

1.7. Adibidea

Praktikaldiko nire lehenengo egunetan, haur batzuei nirekin konfiantza izatea kostatu zitzaien, hala nola, elkarrizketa bat mantentzeko, pardelak aldatzeko, larritasuna sentitzen zutenean lasaitzeko... Hasiera batean haur horiek behatzaile papera hartzen zuten, hau da, nik egiten nuen guztia aztertzen zuten baina gehiegi hurbildu gabe.

Konfiantza hori poliki-poliki eta egunero lantzea oso garrantzitsua da, haurrak giro seguru eta konfiantzazko batean nahi dutena adierazteko grina handiagoa izaten baitute. Beraz, egunerokotasunean hurrekin bizitzen ditugun une eta elkarrizketa txikiak sustatzea, beraiekin ahozketasuna lantzeko eta bien arteko konfiantza areagotzeko aprobeztatzea ezinbestekoa da.

5.2.3. Andamiaje teknika desberdinen erabilpena

Galdera eragileak irakasleok haurren ahozketasuna sustatzeko eta beraien arteko elkarrizketak erregulatzeko eta gidatzeko erabiltzen dugun baliabide bat da, haurrak elkarrizketan parte hartzera animatzeko helburuarekin.

1.8. Adibidea

Behin patioan geundela Sara (28 hilabeteko haurra) patioa iskina batean bakarrik zegoela ikusi nuen. Beraz, ondo zegoela ziurtatzeko berarengana gerturatu eta hondarrean egurrezko makil batekin jolasten zebilela ikusi nuen.

- Irakaslea: **Sara, zertan ari zara?**
- Sara (28 hilabete): **U palo.**
- Irakaslea: **Eta zertarako makil hori?**
- Sara (28 hilabete): **U palo pequenito. Pala cogel lombises.**
- Irakaslea: **Zizareak harrapatzeko makila! Eta nola harrapatuko dituzu zizareak?**
- Sara (28 hilabete): **Asi! Asi!**

Adibide honetan ikusten den moduan, haurrari egiten zaizkien galderak motzak eta zehatzak dira, haurraren interesetan oinarritutakoak. Honek haurraren ahozketasuna ahalbidetzen laguntzen du, hau da, galderak luzeegiak edota korapilatsuak izango balira, seguruenik haurrak ez luke irakaslearekin elkarrizketa horretan parte hartzeko gogorik izango. Azken finean, oso garrantzitsua da irakasleak egunero haur bakoitzari denbora bat eskaintzea, modu honetan haur bakoitzaren zaletasunak eta lehentasunak hobeto ezagutzeko.

Haurren ahozketasuna sustatzeko beste modu bat, egunerokotasunean egiten dituzten akatsak modu eraginkor batean zuzentzea izango litzateke, hau da, haurrek sortzen dituzten esaldiak aberastea, poliki-poliki beraien hizkuntza eta hiztegia hobetzen eta handitzen joan dezaten.

1.9. Adibidea

Egun batean, irakasleak zirkulazio librean geundela, haur bati eskuan tximeleta bat marraztu egin zion. Segituan, gainontzeko haurrak gerturatu

zitzaizkigun beraiei ere eskuan tximeleta marrazteko. Tximeletak hauren eskuetan marrazten ari nintzela, Aiora izeneko 35 hilabeteko haur bat gerturatu zitzaidan, berak ere tximeleta bat marraztea nahi zuelako.

- Aiora (35 hilabete): **Ane! Ane! Mariposa nahi dut!**
- Irakaslea: **Tximeleta marraztea nahi duzu?**
- Aiora (35 hilabete): **Bai tximeeta! Tximeeta!**

Tximeleta marrazten bukatzerakoan, tximeletaren abestia abesten hasi nintzen:

- Irakaslea: **Tximeleta, tximeleta, tximeleta etorri da! Eta jarri da Aioraren buruan! Kili kili kili!**
- Aiora (35 hilabete): **Ota ves, ota ves!**

Aurreko adibidean ikusten den moduan, Aiorak “tximeleta” euskarazko hitza ez du ezagutzen, beraz bere ama hizkuntzako “mariposa” hitza erabiltzen du. Irakasleak hau entzuten duenean, zuzenean arteztu beharrean, esandakoa birformulatu egiten du euskarazko “tximeleta” hitza gehituz. Modu honetan, haurrak ikasi berri duen hitza adierazten saiatzen da. Gainera, irakasleak abesti bat baliabide gisa erabiltzen du, haurra erraztasun handiagoz hitz hori barneratzeko helburuarekin. Azken finean, abestiak, ipuinak, jolas txikiak... Haur Hezkuntzan behin eta berriro erabiltzen diren eta aukera anitzak eskaintzen dituzten baliabide oso garrantzitsuak baitira.

6. ONDORIOAK

Behaketa honetan zehar aztertu den moduan, Haur Hezkuntzan hizkuntzak funtzio soziala du eta pertsonen arteko komunikazioan laguntzen du. Gehien bat, haurrak zirkulazio librean daudenean, bere berdinekoekin jolasten ari direnean edo patioan beraien kabuz jolasten dutenean ere, hizkuntza beraien ekintzak osatzeko eta dituzten zailtasunei aurre egiteko helburuarekin erabiltzen dute. Orokorrean, Haur Hezkuntzako bi urteko haurrek bere berdinekoekin edota irakasleekin dituzten elkarrizketetan hizkuntza testuinguratuta erabiltzen dute, hau da, haurrek ingurunean duten zerbaiten inguruan edota momentu zehatz horretan gertatzen ari denaren inguruan hitz egiten dute. Azken finean, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko haurrei hemen eta orain gertatu ez diren egoerak azaltzea oso zaila egiten baitzaie. Hala ere, Asia izeneko haurraren kasuan ikusi

dugun moduan (1.3. Adibidea), berak etxetik ekarritako argazki-albura baliabide gisa erabiltzearekin, “hemen eta orain” egoeratik kanpo dauden beste egoera batzuk gogoratzeko eta hauek hitzen bidez adierazten saiatzeko aukera eman dio, poliki-poliki testuingurutik kanpoko hizkuntzara gehiago gerturatuz.

Horretaz gain, ikusi den moduan nahiz eta haur guztiak gela berdinean egon, bakoitzak ahozketasuna garatzeko eta gainontzekoekin komunikatzeko bere erritmoa du, eta irakasleek erritmo desberdin hauek errespetatu beharko dituzte, kalitatezko irakaskuntza-ikaskuntza bat sustatu ahal izateko. Beraz, haurren arteko ahozketasunaren garapenaren desberdintasun nabariak, urte hasieran eta urte amaieran jaiotako haurren artekoa izan dela ondorioztatu dezaket. Azken finean, haurrak, hitz eginez hitz egiten ikasten baitute. Urte amaieran jaiotako haurren kasuan adibidez, denbora gutxiago daramate hizkuntzarekin kontaktuan, urte hasieran jaiotako haurrekin konparatuz.

Gainera, irakaslearen rolari erreparatzea ere oso garrantzitsua da, izan ere ikasle guztiek ikaskuntza lor dezaten ezinbesteko zeregina baita. Azken finean, irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar ikasleen laguntzailea eta bidelaguna bihurtzen da. Horretarako, irakasleak behaketaren bidez, haur bakoitzaren beharrak identifikatu eta hauek baloratu beharko ditu, ondoren, haur bakoitzari modu eraginkor eta egoki batean erantzun ahal izateko. Hortaz, irakasleak ikasgelan konfiantzazko giro bat egotea bermatu behar du, haurra espazio horretan eta baita irakaslearekin ere seguru eta konfiantzaz sentitu dadin. Modu honetan, haurren ingurunea esperimendatzen hasteko jakin-mina handituko da, poliki-poliki komunikaziorako gaitasun handiagoa berenganatuz. Behaketa honetan zehar aztertutako zenbait adibideetan ikusi daitekeen moduan, irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrizketak eraginkorragoak izateko helburuarekin, irakasleak elkarrizketari behar duen andamiajea ematen dio, hala nola, galdera eta zuzenketa esanguratsuak eginez.

7. AHOZKOTASUNA LANTZEKO PROPOSAMENA

Lehenik eta behin, ondoren azalduko den sekuentzia didaktikoko jarduerak ezin izan ditut aurtengo praktiketan praktikara eraman, ikastola honek jarraitzen duen metodologia eta irakasleek duten lan egiteko modua dela eta. Hala ere, Haur Hezkuntzako bi urteko gela batean horrelako jarduerak egitea

haurrentzat ahozotasuna lantzeko oso baliagarria izan daitekeela iruditzen zait. Horregatik, jarduera hauek nik aurten aztertutako Haur Hezkuntzako bi urteko haurren interesetatik abiatzen dira.

Era berean, garrantzitsua da jarduera guzti hauek haurrari protagonismoa ematea, modu honetan, haurrak jarduera desberdinetan askatasunenez esperimentatzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, poliki-poliki beraien ahozotasuna geroz eta gehiago landuz. Hala ere, jarduera guzti hauek aurrera eramateko momentuan, haurrek jarduera horietan parte hartzea ala ez erabakitzeko aukera izan behar dute, hau da, jardueretan parte hartu nahi ez duten haurrei ez zaie behartuko eta zirkulazio librean jarraitzeko aukera eskainiko zaie.

7.1. Plangintza fasea: Sekuentzia didaktikoaren diseinua

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: KOLOREAK		
1. HELBURUAK		
<p>1.1. Egunerokotasuneko egoera eta errutinak aprobetxatuz (elkarrizketak, ipuinaren momentua, abestiak...), bi urteko gelan interakzioak kalitatez eta kantitatez sustatzea eta hobetzea, haurren komunikazioa eta hizkuntza hobetzeko.</p> <p>1.2. Komunikazioaren bidez, ikasgelan giro egokia eta konfiantzazkoa lortzea, irakaslearen eta haurraren arteko atxikimendu segurua sortzeko eta poliki-poliki hau indartzeko.</p> <p>1.3. Entzuketa aktiboaren bidez, haurrak bere berdinekoek eta helduek adierazten dituzten mezuak egoki ulertzea, poliki-poliki hizkuntza barneratzeko eta hau gehiago erabiltzeko.</p>		
2. EDUKIAK		
Kontzeptuzkoak	Prozedurazkoak	Jarrerazkoak
2.1. Ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko lehen urratsak ematea,	2.1. Ideiak sortu eta adieraztea.	2.1. Jardueretan parte hartzea eta ekimena izatea.

<p>beharrizanak eta emozioak komunikatzeko, izandako bizipenak gogoratzeko eta norberaren portaera erregulatzeko.</p> <p>2.2. Informazioa ulertzea (konparatzea, sekuentziatzea eta aztertzea) eta adieraztea (deskribatzea, zehaztea, azaltzea. etab.).</p> <p>2.3. Eskuen erabilera fineko trebetasunak koordinatzen eta kontrolatzen hastea.</p>	<p>2.2. Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea.</p> <p>2.3. Jolasa erabiltzea ingurune fisikoa esploratzeko.</p> <p>2.4. Ahotsa deskubritzea eta probatzea.</p> <p>2.5. Espazioa behatzea eta arakatzea, eta haietan dauden objektuak erabiltzea zentzumenen eta ekintzen bidez (erortzen uztea, kolpatzea, hustea, zatitzea, etab.).</p>	<p>2.2. Elkarbizitzaren arau batzuk betetzea (txandaren zain egotea).</p> <p>2.3. Komunikazio-harremanen oinarrizko arauak erabiltzen hastea (hitz egiten zaionari begiratzea, arretaz entzutea, etab.).</p> <p>2.4. Dramatizazio eta imitazio jolasetan, dantzetan parte hartzeko interesa izatea.</p>
---	---	---

3. EBALUAZIOA

Ondorengo sekuentzia didaktikoa ebaluatzeko irakasleak erabiliko dituen tresna nagusiak behaketa zuzena eta erregistro taula izango dira **(Ikusi I. Eranskina)**. Horretarako, baliabide nagusi gisa, irakasleak eguneroko bat erabili dezake, bertan, haur bakoitzaren aurrerapenen eta zailtasunen inguruan oharrak hartzeko eta baita gelan orokorrean eman diren aurrerapenak ere idazteko.

Ebaluazio irizpideak:

- Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentsazioak, emozioak, beharrizanak eta gogoak ezagutu, adierazi eta erregulatzeko.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea bere berdinekoekin eta pertsona helduekin harremanak izateko, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda.
- Komunikazio-egoeretan eta gizarte harremaneko jolasetan parte hartzeko oinarrizko arauak ezagutzea.
- Artearen eta ikus-entzunezkoen bitartekoak, materialak eta teknika erabiliz adieraztea eta komunikatzea.

- Ingurunearen elementuen behaketaren, eskuzko erabileraren eta esplorazioaren bidez deskubritzeko jakin-mina adieraztea.
- Jolasetan parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, gero eta gehiago erregulatzea sentimenduen eta emozioen adierazpena.

7.2. Jarduerak:

1. Jarduera:

GAIAREN AURKEZPENA: KUTXA ZURI MISTERIOTSUA						
1. METODOLOGIA						
Helburu zenb.	Zeregin mota	lkd	IRkd	Gela mota	Baliabideak	Talde mota
1.1. 1.2. 1.3.	Koloreen gaia aurkeztu eta inguruko aurre ideiak adierazi.	30'	15'	Ohiko gelan Topagunea	Kutxa zuria, kolore desberdinetako irudiak (arropa, janaria, objektuak...).	Talde handian
Jardueraren azalpena:						
<p>Jarduera hau egunerokotasunean errutina moduan aurrera eraman daitekeen jarduera bat da, hau da, ohiko errutinak amaitu ondoren topagunean bildu eta hurrei kutxa misteriotsua aurkeztuko zaie. Kutxa honetan, hainbat koloreetako fruta, objektu, jostailu eta arropen irudiak aurkituko dira, hala ere, garrantzitsua da irudietan agertzen diren koloreak ongi definituta egotea, haurrak ez nahasteko helburuarekin. Jarraian irakasleak koloreen gaia aurkezteko banan-banan kutxatik irudi bat aterako du eta ikasleei erakutsiko die, haur bakoitzari kutxatik ateratako irudi bat eskainiz.</p> <p>Irakasleak galdera eragileen bidez haurraren parte hartzea sustatu dezake. Horretaz gain, irakasleak egunerokotasuneko egoerak aprobetxatu beharko ditu ikasleek haien hiztegia eta ezagutza zabaltzeko, hau da, prestakuntza mugatu gabe haurren interesetara moldatzea oso garrantzitsua da.</p>						

Adibidez:

- Zer da hau?
- Zer koloretakoa da?
- Nire kamiseta urdina da, Saioaren kamiseta berriz, zer koloretakoa da?

Ondoren behin irudi guztiak banatu direla, irakasleak kolore bat adieraziko du eta hurrek kolore hori duten objektu guztiak kutxan gorde beharko dituzte. Jarraian, irakasleak beste kolore bat esango du eta horrela objektu guztiak gorde arte.

Adibidez:

- Orain kolore horia duten objektu guztiak kutxa magikoan sartuko ditugu!

2. Jarduera:

KOLOREAK IKASTEN ABESTIA						
1. METODOLOGIA						
Helburu zenb.	Zeregin mota	Ikd	IRkd	Gela mota	Baliabideak	Talde mota
1.1. 1.3.	Abestia ikasi, abesten saiatu eta dantzatu.	15'	10'	Ohiko gelan Topagunea	Puxikak (berdea, gorria, urdina, zuria eta horia).	Talde handian
Jardueraren azalpena:						
<p>Jarduera honekin hasteko, lehenik eta behin, denak topagunean bilduta daudela irakasleak “koloreak ikasten” abestia abesten hasiko da (Ikusi I. Eranskina). Garrantzitsua da abestiarekin batera korografia txiki bat egitea, modu honetan, hurrek erraztasun handiagorekin memorizatzeko eta baita oraindik ahozotasuna guztiz garatuta ez duten hurrek koreografia imitatuz, jardueran parte hartzeko aukera izateko.</p> <p>Ondoren irakasleak lehengo egunean erabilitako kutxa misteriotsua atera egingo du, baina oraingoan irudiak atera beharrean kolore desberdineko</p>						

puxikak aterako ditu banan-banan. Irakasleak puxikak ordena zehatz batean atera beharko ditu, hau da, abestiak duen ordena jarraituko du (gorria, berdea, horia, urdina eta azkenik, zuria). Puxika bat kutxatik ateratzen duen bakoitzean hurrei zein koloretakoa den galdetuko die eta hauek erantzuten dutenean, puxika puztu eta kolore horren abesti zatia denak batera abestuko dute. Jarraian, irakasleak beste puxika bat aterako du eta berdina errepikatuko du haur guztiak kolore bateko puxika eduki arte.

Adibidez:

- Irakaslea: Zein koloretakoa da puxika hau?
- Haurrak: Gorria!
- “Gu gara gorria, gorriak gara gu. Odola bezala, gorriak gara gu.”

Haur guztiek puxika bat lortu dutenean, berriro ere “koloreak ikasten” abestia abestuko dute baina oraingo honetan, irakasleak puxika gorria duten hurrek topaguneko erdian zutik jartzea eskatuko die eta abestia abesten dugun bitartean beraiek erdian dantzatzen eta saltoka egongo dira. Hala ere, puxika gorria ez duen haurren bat altxatuz gero, irakasleak bere puxika ea zer koloretakoa den galdetu egingo du eta haurra bere tokian eseri beharko da bere kolorearen txanda heldu arte.

3. Jarduera:

GELATINAREKIN ESPERIMENTATZEN						
1. METODOLOGIA						
Helburu zenb.	Zeregin mota	Ikid	IRkd	Gela mota	Baliabideak	Talde mota
1.1. 1.2. 1.3.	Gelatina manipulatzeko, ematen dituen aukera ezberdinak aztertzea eta esperimentatzea.	25'	30'	Jarduera anitzeko gela	Gelatina, lastotxoak, goilareak, sardexkak eta labanak (plastikozkoak)	Talde txikian
Jardueraren azalpena:						

Jarduera honetan haurrak bi azpitaldeetan batuko dira, talde batek jarduera hau gauzatzen duten bitartean beste taldeak ohiko gelan zirkulazio librea arituko dira. Garrantzitsua da irakasleak haurrak gelara sartu aurretik material guztia prest edukitzea. Gelan hiru mahai egongo dira eta mahai bakoitzean gutxi gorabehera lau haur kokatuko dira. Haur bakoitzari erretilu bana esleituko zaio, non gelatina ontzi bat eta kolore desberdinetako gelatina zati desberdinak izango dituzte, koloreen aniztasuna aintzat hartuz. Horretaz gain, gelatinarekin esperimintatzeko tresna desberdinak ere eskuragarri izango dituzte, hala nola, lastotxoak, koilarak, sardexkak eta plastikozko labanak.

Jarduera honetan irakasleak gehien bat behatzailea izango da, hau da, irakasleak haurren sormena eta esperimintazioaren alde egingo du. Hala ere, segurtasuna eskaintzeko, arauak gogoratzeko eta baita aproposa denean ekintzan parte hartzeko aukera izango du. Adibidez, haurren interesa, eta ahozkotatasuna sustatzeko zenbait galdera eragile egin ditzake:

- Zer da hori?
- Gelatina hotza dago?
- Zein koleretakoak dira gelatinak?
- ...

4. Jarduera:

IPUINAREN MOMENTUA: KOLOREAK						
1. METODOLOGIA						
Helburu zenb.	Zeregin mota	lkd	IRkd	Gela mota	Baliabideak	Talde mota
1.1. 1.3.	Ipuin kontaketa	15'	15'	Ohiko gela: Topagunea	Ipuina	Talde handian
Jardueraren azalpena:						
Garrantzitsua da irakasleak hurrei ipuina hastear doala edota amaitu dela jakinarazteko, ipuina hasi eta bukatzeko uneetan beti esaldi berdinak erabiltzea. Ipuina kontatzeko denak topagunean bilduko dira, haurrak lurrean						

eseriko dira eta irakasleak, haur guztiak ipuina ondo ikusteko helburuarekin, aulkitxo batean eseriko da.

Ipuinean zehar, haurrak istorioan murgildu ahal izateko, ezinbestekoa izango da irakasleak haurren parte hartzea bultzatzea, hala nola, ekintza baten bidez edo ipuinean agertzen diren hitzak eta esaldi nagusiak errepikatuz.

5. Jarduera:

TXIMELETA KOLORETXUAK						
1. METODOLOGIA						
Helburu zenb.	Zeregin mota	Ikid	IRkd	Gela mota	Baliabideak	Talde mota
1.1. 1.2. 1.3.	Tximeletak sortu eta margotu. Ondoren tximeletaren abestia ikasi eta abesten saiatu.	45'	30'	Jarduera anitzeko gela Ohiko gela: Topagunea	Margoak, izozki makilak eta kola.	<u>Tximeletak sortzen:</u> Talde txikian <u>Abestia:</u> Talde handian
Jardueraren azalpena:						
<p>Jarduera honetan ere haurrak bi azpitaldeetan batuko dira, hau da, talde batek jarduera gauzatzen duten bitartean, beste taldeak ohiko gelan zirkulazio librean arituko dira. Garrantzitsua da irakasleak haurrak gelara sartu aurretik material guztia prest edukitzea. Gelan hiru mahai egongo dira eta mahai bakoitzean, gutxi gorabehera, lau haur kokatuko dira. Jarduerari hasiera emateko denak borobil batean elkartuko dira eta irakasleak haurrei txuri-beltzean dagoen tximeleta baten marrazkia erakutsiko die. Izan ere, haurren arreta berenganatzeko helburuarekin, irakasleak tximeletaren irudia poliki-poliki erakusten joan dezake, modu honetan, haurrak zein animalia den asmatzen saiatu beharko dira. Horretaz gain, irakasleak solasaldi txiki honetan haur guztien parte hartzea sustatu behar du, horretarako haurrak galdera desberdinen bidez animatu ditzake, interakzioan parte hartu dezaten.</p>						

Adibidez:

- Zein animalia da?
- Eta tximeletak txuri-beltzak dira?
- Zein koloretakoak dira tximeletak?

Tertulia txiki honekin bukatu ondoren, irakasleak haur bakoitzari tximeleta bat eskainiko die eta hauek tximeleta nahi duten kolore desberdinez margotu beharko dituzte. Ondoren, tximeletak marrazten bukatzerakoan, irakaslearen laguntzarekin tximeletak izozki makil batean itsatsi eta gelako iskina batean lehortzen utzi beharko dituzte.

Bi taldeak jarduera burutu ondoren, ohiko gelako topagunean elkartu eta irakasleak tximeletaren abestia erakutsiko die (Ikusi II. Eranskina). Abestia behin eta berriro errepikatuko du haur guztien izena esan arte.

8. AZKEN GOGOETA

Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratu aurretik, banekien aurtengo praktikak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan aurrera eraman beharko nituela, horregatik, lehenengo etapa honetan lantzea interesgarria izango liratekeen gaiak aztertzea erabaki nuen. Azken finean, bizitzako etapa honetan haurren garapenean aldaketa handiak ematen direlako, adibidez, ahozkoahizkuntza eta hizkuntza. Ahozkoahizkuntzaren gaia oso interesgarria iruditu zitzaidan, izan ere harrigarria da nola haur bat haur eskolako urtebeteko gelara hitz egiten jakin gabe iristen den eta bi urteko gelara igarotzen denean berriz, poliki-poliki ahozkoahizkuntzaren gehiago hurbiltzen den, gainontzekoekin komunikatzeko ahozko hizkuntza geroz eta gehiago erabiliz. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honetan haurren ahozkoahizkuntzaren jabetze prozesua behaketa sakon baten bidez aztertzea erabaki nuen.

Orokorrean lan hau ahalegin eta denbora handia eskaini didan erronka gogorra izan da. Aipatu beharra dago, lan honi esker gauza berri asko ikasi ditudala, adibidez, lan hau gauzatu aurretik arreta deitzen ez zidaten eta haurren garapenerako funtsezkoak diren alderdiei erreparatzeko aukera izan dut. Puntu honetan, eskerrak eman nahi nizkioke prozesu honetan zehar

bidelagun izan den tutoreari, azken finean, lanaren inguruan suertatzen zitzazkidan edozein zalantza edo arazoen aurrean laguntzeko prest egon baita. Ondorioz, Haur Hezkuntzako gradu hau lehenengo momentutik neure burua hobeto ezagutzeko balio izan dit, benetan gustatzen eta motibatzen nauen zerbaitetan lan eginez. Orokorrean, esperientzia hau positiboa izan dela uste dut eta etorkizunerako oso baliagarriak izango zaizkidan gauza mordoak ikasi ditudalakoan nago.

9. ERREFERENTZIAK

- Bigas, M. (1996). Aula de Innovación Educativa. Revista Aula de Innovación Educativa.
- Bigas, M. (2008). "El lenguaje oral en la escuela infantil", in Bigas, M. eta M. Correig, 2008 (arg.), *Didáctica de la lengua en la Educación Infantil*, Síntesis. Educación. Madril.
- Del Río, M. J. (1993). "Algunas cuestiones e ideas previas sobre la enseñanza de la lengua oral comunicativa", in *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Garrido, L. (2006). Apego, emoción y regulación emocional. Implicaciones para la salud. Chile: Revista Latinoamericana de Psicología.
- Geddes, H. (2010). El apego en el aula. Relación entre las primeras experiencias infantiles, el bienestar emocional y el rendimiento escolar. Bartzelona: GRAÓ.
- Gómez Flores, A. M. (2010). Expresión y comunicación. Bloques 2 y 3 (MF1031_3). Málaga, Spain: IC Editorial.
- Guerrero, L. (2005). Desarrollo social: nuevo eje de la Educación Infantil. Perú.
- Guibourg, I. (2008). "El desarrollo de la comunicación" in Bigas, M. eta M. Correig, 2008 (arg.), *Didáctica de la lengua en la Educación Infantil*, Síntesis. Educación. Madril.
- Huarte, M. eta Ozerinjauregi, J. (2012). Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean. Begoñako Andra Mari Ikasle Eskola.
- Ituero, B. eta Casla, M. (2017). ¿Cómo empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana. Bartzelona: GRAÓ.
- Karmiloff, K. eta Karmiloff Smith, A. (2005). Hacia el lenguaje: del feto al adolescente. Madril: Morata.
- López Valero, A. eta Encabo, E. (2016). Fundamentos didácticos de la lengua y literatura. Didáctica de la lengua oral. Madril: Síntesis.
- Mariscal, S. (2010). El desarrollo psicológico a lo largo de la vida. Madrid: Mc-GrawHill.
- Mateos, M. J. (2003). "Modelos de dramatización" in Vizquete, M. (arg.), *Los lenguajes de la expresión*. Madril: MEC.

Mostacero, R. (2004). Oralidad, escritura y escrituralidad. Venezuela: Revista Universitaria de Investigación.

Owens, J. R. (2006). Desarrollo del lenguaje. Madrid: PEARSON Prentice Hall.

Pérez Abril, M. eta Roa, C. (2010). Referentes para la didáctica del lenguaje en el primer ciclo. Bogota: Secretaría de Educación Distrial.

Sellares, R. (2008). Aprendemos en función del cómo nos vinculamos. Aula de infantil, 46. Bartzelona: GRAÓ.

Quinto, B. (2010). Educar en el 0-3. La práctica reflexiva en los nidi di'infanzia. Bartzelona: GRAÓ.

10.ERANSKINAK

I. Eranskina: Erregistro taula

DATUAK				
Data:	Saioa:	Adina:	Izen Abizenak:	
ERREGISTRO TAULA				
Lorpen adierazleak	BAI	ZAILTASUNEZ	EZ	OHARRAK
- Gainontzekoekin komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzen du.				
- Gainontzekoekin komunikatzeko ez hitzeko hizkuntza erabiltzen du.				
- Behar duenean laguntza eskatzeko gai da.				
- Gainontzekoek esaten eta adierazten dutena arretaz entzuteko eta ulertzeko gai da.				
- Irakasleak ematen dituen jarraibideak betetzeko eta arretaz entzuteko gai da.				

- Ahozko hizkuntza darabilten jardueretan gogoz parte hartzen du.				
-				

II. Eranskina: Abestiak

KOLOREAK IKASTEN
Koloreak ikasten Koloreak ikasten Koloreak ikasten ari gara. Gu gara gorria Gorriak gara gu Odola bezala Gorriak gara gu. Gu gara berdeak Berdeak gara gu Belarra bezala Berdeak gara gu. Gu gara horiak Horiak gara gu Eguzkia bezala Horiak gara gu. Gu gara urdinak Urdinak gara gu Zerua bezala Urdinak gara gu. Gu gara zuriak Zuriak gara guk Elurra bezala Zuriak gara gu.

TXIMELETA
Tximeleta, tximeleta Tximeleta etorri da Eta jarri da "izena"-ren "gorputz atala"-n.